


Ipuintxo bat gauero I



AHATETXO ITSUSIA

Errota zahar batean, ahate
Emea arrautzak txitatzen ari
zen. Bere ahate txoak zein ederrak
izango ziren pentsatzen zuen.

«Izango dira politak,
izango dira ederrak, nire
semetxoak izango dira
lirain eta politak», esaten
zuen hasperenka.



Ahatetxoek hainbat egun behar izan zituzten arrautzatik irteteko. Azkenean, amak banan-banan irteten ikusi zituen. Oso bizkor hasi zitzaion bihotza taupadaka, pozaren pozez. Amarekin batera

uretara sartu, eta igerian hasi ziren, denak batera, txio-txioka. Oso ederrak ziren denak. Baina, azkena, arrautza zuritik irten zena, berezi-berezia zen, ez zen

